



3 UDALBATZARRA

Bilduk aurkeztutako hiru mozioak onartu ziren

Ohiko Udalbatzarrean aurkeztutako hiru mozioen artean bi, Bateragune auziaren inguruko eta Euskaltegien kalitatezko bozkari esker onartu ziren. Zabaleta aldapako berurbanizazioa mintzagai izan zuten eta honetan ere Bilduren proposamena izan zen aurrera ateratzen.

5 ELKARRIZKETA

Iñaki Petxarroman Berriaren zitzada kanpainaz solasean

“Zure Zitzada behar dugu” kanpaina martxan jarri du Berria egunkariak eta honen inguruan aritu gara kazetari lasarteoriatarrekin, orain egunkariko zuzendariordea da. Helburua 5.000 Berria lagun lortzea da egunkariak dituen arazo ekonomikoak gainditzeko. Kanpaina herrian zabaltzeko asmoa dute datozen asteetan.

Bertsolari harrobi bikaina

Lasarte-Oriako XIX. Bertso paper lehiaketaren sariak banatu ziren Manuel Lekuona kultur-etxean asteazkenean



Sariutak Ane Labaka, Unai Muñoa, Ttakuneko Aitor Uriarte eta Boris Nogalesekin batera. Nahia Arruti falta da irudian lehenago irten behar izan zuten eta.

6 FUTBOLA

Ostadarrek herritarren bultzada behar du

Ostadar SKT-ko Erregional Gorenak igoera jokatzen du larunbata honetan Touring-en aurka. Partida 16:30etan izango da Fanderia zelaian Errenterian eta honetara zaletu eta heritarrak joateko deia egin dute. Denboraldi txukuna egin du Mikel Martija eta Asier Gorostegik zuzentzen duten erregional taldeak, izan ere guztira hogeitabi partida irabazi dituzte, lau galdu eta bi berdindu.

Takun Kultur Elkartea eta Udal Euskara batzordeak antolatzen duten Lasarte-Oriako XIX. Bertso Paper Lehiaketako sari banaketa Ane Labaka eta Unai Muñoa bertsolarien saioarekin hasi zen.

Ekitaldian aretoa bete zuten Sasoeta, Landaberi eta Institutuko ikasle eta irakasleek.

Guztira 200 lan aurkeztu ziren eta epaimahaiarentzat ez da lan erraza izan hauen artean hoberenak hautatzea.

Bertso saioa giro alaiaren burutu zen. Labaka eta Muñoa hamabi urteko ikasleen paperak hartu zituzten eta ligatzearen gaiarekin lortu zuten

bertaratutako barrak eragitea. Besteak beste, gai jartzailerak begiak itxi arazi zizkien txandaka bertsolariei objektu bat eskutan jarrita, hau asma zezaten noski, bertsoa erabiliz.

Sari banaketa

Saioa amaitzeko kopletan aritu ziren bi bertsolariak oholta utzita. Entzuleengana hurbildu ziren eta institutuko irakaslea den Jon Eizmendi batu zitzaizkien bertsoak eurekin botatzeko. Ondoren, sari-tuen izenak ezagutu ziren eta hauek esan ahala bakoitzak bere bertsoa botatzeko aukera izan zuen.

Landaberriko lehen hez-

kuntzan, lehenengo saria Xuar Agirrek eskuratu zuen eta bigarrena berriz, Nahia Arrutik. Sasoeta-Zumabururen lehen saria jaso zuten Yeray Mendibe eta Diego Andreuk. Lehen hauek krisia izan zuten gaia bertsoa idazteko eta Zapatero edota Rajoiri aipamenak ez ziren falta izan.

DBHko ikasleen artean berriz, hautatutako gaiak Nik sarri begiratzen diot baina berak inoiz ez! eta Ez naute ulertzen!, bigarren Aitziber Mendiluze izan zen eta garaillea Lierni Rekondo. Azken honek lan hunkigarria aurkeztu zuen Ane Labakaren laguntzarekin kantatu zuena eta

txalo zaparrada luzea jaso zuena.

SMS hoberena

Ekitaldian SMS lehiaketako sarituaren izena ere eman zen ezagutzera eta hau Eder Gestoso Landaberriko ikaslea izan zen. Gaztetxoak honakoa aurkeztu zuen:

“:-) abnd xar oi bkt t zr bgk ngrz:-) gldt dr. Lhng bgk rz stl t gr nr r drtt. mt ztu!!!@)---- Zre bgik dddz in due nie mxurkn. x. Nr olrka zretzt mta. MT ZUT!!!”

Guztiekin gustura hartu zituzten euren sariak Boris Nogales Euskara Batzordeko buruaren eskutik.



Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

MAITE
ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Neure kabuz



Unai Muñoa

Izan ala jakin?

Eskolak jakintza eta etxeak nortasuna zein oreka emozionala eman behar digutela uste dezakegu, eta agian hala da, baina egoera zein den ikusita...

Adimen emozionalak espazio txiki bat lortu du zenbaki eta hizkien unibertsioan, eskolan, alegia. Gero eta gehiago dira aintzat hartzen dutenak. Ikaslearen heziketarako ezinbesteko oinarria dela sinesten dut nik, ordea: tresna eta helburua.

Gizarte helduaren estresaren eta arauen naufragio dira gure txikiak. "Nola izan nor" erakutsi baino lehen, "zer jakin" esaten diegu. Egunero kudeatu ezinik darabilzkiten emozioak erregulatzeko lagundu ordez, areagotu eta ugaritu egiten dizkiegu, gure exigentziekin. Alperrek, bihurriak, hiztunak, motzak, azkarrak, txintxoak... direla sinestarazten diegu, asko laguntza eske garrasi isilean dihardutela konturatu gabe.

Jakitea garrantzitsua izango da, baina ez amorrua kanalizatzen, tristurak eta pozak konpartitzen, motibatzen, kritikoa izaten, beldurrari aurre egiten... ikastea beste. Bizitarako benetako baliabideak gure barrenean ditugu, mugak ditugun bezalaxe, eta horiek kudeatzen jakiteak prestatzen gaitu bizitarako. Emozioak dira brujula eta zorionsuak izatea iparra.

Gure eskoletan ikaslearen beharrrak asetu behar ditugu, eta gaur egun hutsune emozional sakonak antzematen direla esateko ez da korbataduna izan beharrik. Barreneko korapiloak askatzen laguntzea, Europako kapitalak eta Espaniako ibaiak erakustea baino lehentasunekoagoa dela uste dut. Azken hau ere, garrantzitsua dela ukatu gabe. Nahiz eta niri, egia esanda, ez didan askorako balio izan Nilo Japonen dagoela jakiteak...

Zorion agurrak



Ander eta Unax

Ondo pasa zuen egunetan eta txokolatezko muxu bat familiaren partetik!



Unai

Zorionak gure Zurutza txikiari! Hamaika mila muxu handi denen partetik.

Iraia

Zorionak printzesa! Hiru muxu handi familiaren partetik!



Nora

Zorionak pottoki! Lau txokomarrubizko musuak etxeokoen partetik!



Iraia

Etxeok sorgina-dantzariari! Txokolatezko bi muxu zure familiaren partetik!



Karlos eta Joserra

Zorionak Jalguneko lagun partetik! Merezitako ospakizuna egingo dugu bihar.



Aitona eta Haritz

Zorionak! Oso ondo pasa. Ea bazkari goxobatekin ospatzen dugun. Muxu handi bat.



Juncal

Zorionak asko maite zaituen familiaren partetik eta batez ere Natxoren partetik!



Aintzane

Zorionak zure zortzigarren urtebetetzean eta muxu handi bat etxeokoen partetik.



Maialen

Zorionak señorita eta bost muxu handi familia osoaren partetik. Ondo pasa.



Jon eta Asier

Zorionak bikote! 16 eta 6 muxu handi familia gutzian partetik. Segi horrela futbolistas!



Nahia

Zorionak zazpi muxu handi Erikaren partetik.



Ainara

Zorionak sorgintxo! muxu handi bat etxeokoen partetik!

Azoka txikia

Salerosketak

- Bizkientzako aulkia saltzen da. Egoera onean. Harremanetarako, 658 743 763.
- Lehen Jaunartzeko 2 jantziak saltzen ditut, oso prezio onean. Tel. 688 667982
- Suzuki Burgman motoa salgai. 125. 8.000km. Prezioa negoziatu daiteke. 686 964 807
- Toyota Corolla salgai. Oso baldintza onetan eta prezio oso interesgarrian. 686 964 807
- 90ko ohe batean bihurtzen den sehaska saltzen dut. Azpitik beste ohe bat dauka ere. Interesatuak 685 737 428ra deitu.
- Bugaboo markako kotxe kapota, gehi hainbat

osagarri salgai. Interesatuak 685 737 428ra deitu.

Eskaizta inmobiliarioak

- Garaje marra bat alokatzen da Hipodromo etorbideko 10. zenbakian. Prezio negoziagarria 50 euro. Interesa dutenek 943 36 24 72 zenbakira deitu.
- Pabilioi industrialak saltzen da Brunet-en (Lasarte-Oria). 250 metro karratu. 658 910 569
- Uistin kalean pisua alokatzen dut. Sukaldea, lau logela, egongela eta bi komun ditu. Amueblatuta dago. Interesatuak honako telefonoetara deitza: 679 840 276 eta 943 372 066

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

- Nahia Echezarreta Holgado, apirilaren 12an.
- Oier Sanchez Hernandez, apirilaren 10ean.
- Sara Gil Infante, apirilaren 10ean.
- Hugo Villaroya Perez, apirilaren 2an.
- Irati Olazabal Gutierrez, martxoaren 29an.
- Iker Garcia Castro, martxoaren 28an.
- June Garcia Castro, martxoaren 28an.
- Julen Murillo Beobide, martxoaren 28an.

Heriotzak

- Teresa Goizueta Perurena, apirilaren 9an, 90 urte zituela.
- Josean Telleria Katarain, apirilaren 7an, 47 urte zituela.
- Pablo Rodriguez Llana, apirilaren 3an, 90 urte zituela.
- Carmen Iza Arregi, apirilaren 1ean.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 20**
Acha-Orbea, Hipodromo etorbidea 6
943 363549
- Larunbata, 21**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Igandea, 22**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Astelehena, 23**
Urbibondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Asteartea, 24**
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Asteazkena, 25**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Osteguna, 26**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chucua, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551 793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea: Txakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366 858, 943 371 448, G-20407557 Legezko gordailua: SS513/93 ISSN: 1134-0053 Inprimategia: Zerua Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 Erredakzioa: Nerea Eizagirre, Jon Altuna Iza, Maider Azumendi, Jon Altuna Egitegi txintxarri@txintxarri.info txintxarri@takun.com publizitatea@takun.com Administrazioa eta banaketa: administrazioa@takun.com; txakun@takun.com. Txintxarri ez du bere gain hartuko irizti-artikuluak edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

UDALA

Kalitatezko bozkaren balioa

Bateragune eta Euskaltegien mozioak bozka honi esker onartu ziren

Lasarte-Oriako Udaltzarrak ohiko bilkura egin zuen asteartean. Honetan, besteak beste, auzoz auzoko proposamenak aintzat hartu eta aurrera eramatea eta Bateragune auzia dela eta, espetxe-ratuak dauden bost pertsonak, Rafa Diez



Zabaletako aldapa berurbanizatzea auzoz auzoko bileretako ideietako bat da.

Hilabetero bezala, Udaltzarrak bildu zen asteazkenean. Zabaleta aldapako berurbanizatzea aztertu zen eta Bateragune auzia edo euskaltegien dirulaguntzen murrizketa ere izan ziren mintza gai. Alderdiak eta herritarrek haien galderak eta erregak egiteko aukera ere izan zuten.

Hala ere, lehenik likidazio eta kreditu aldaketak bideratzeko dosierren berri eman zen. Ogasun sailko arduradunak Estitxu Alkorta hilabete hauetan gastua murrizteko egin den lana aipatu zuen.

Eta hurrengo asteetan aurrekontuak Ogasun batzordean aurkeztuko direla aurreratu zuen.

Zabaletako aldapa

PSE-Eek Zabaletako aldapa berurbanizatzeko aurkeztutako mozioa eta Bilduren zuzenketak aztertu ziren.

PSE-Eek aurkeztutako proposamena Zabaletako herritarrek eskatutakoa eta haien programan agertzen den puntua zela aipatu zuen Jesus Zaballosek.

Era berean, Bilduren emendakina PSE-ren proposamena ixiltzeko egina zegoela adierazi zuen.

Bilduko Nerea Sanchezek auzoz auzoko bileretan herritarrek esandakari ezin zaiola muzin egin adierazi zuen. Herrian dauden arazo guztiak aztertu, Zabaletako aldapa barne, eta irtenbidea emango zaiela adierazi zuen.

Eztabaidaren ostean, Bilduren eskaera onartu zen EAJ, LOHP eta Marisa Zubiri zinegotzi ez adskribatuaren bozkekin. PSE-Eek aurka egin zuen eta PP-k abstentziora jo zuen.

Bateragune

Bateragune auziak ere izan zuen leku batzarrean. Bilduk eta EAJ-k bi testu desberdin aurkeztu bazituzten ere, biek adostutako emendakina eraman zuten Udaltzarrera.

Honetan, martxoaren 28an, Auzitegi Gorenak Bateragune auzian emandako ebazpena bertan behera uztea eta Arnaldo Otegi, Miren Zabaleta, Sonia Jacinto eta Lasarte-Oriako herritarra den Rafa Diez aske uzteko eskaria egin da.

Berdinketa izan zen bozkan, Bildu eta EAJ alde egin zuten, PSE eta PP alderdiak aurka eta LOHP eta ez adskribatutako Marisa Zubiri abstentitu ziren. Eta alkatearen kalitatezko botoari esker, onartu zen proposamena.

PP-ko Vanesa Velez zinegotziak aipatu zuenez, "erabaki judizialei buruz hitz egitea ez dut gustuko".

Hala ere, zinegotziak Udaltzarrak eskaera hori egitea bidezkoa ikusten ez duela eta egoera politikoan aurrera pausak egiteko, Bildu edo Amaiurrek ETARI desagertzea eskatu behar diotela azpimarratu zuen.

Euskaltegiak

Honetaz gain, Eusko Jaurlaritzak eta HABEK Udaltzarraren dirulaguntzen murrizketa dela eta, Bilduk mozioa aurkeztu zuen.

Bilduk euskaltegien dirulaguntzen murrizketak Udalei suposatzen dien karga ekonomikoa salatu zuen. Bilduren ustez, egoera honek pribatizazioa bulatzatuko ditu.

Gauzak honela, Jaurlaritzak eta HABERi baliabide ekonomikoa jartzea, ardura politikoa kontuan izatea, erakundeak arduraz jokatzeko eskatu eta euskararen alde lan egiteko herritarrei deialdia egin die Bilduk.

Gai honetan ere bi bozka egin behar izan ziren eta alkatearen kalitatezko bozka erabili behar izan zuen berriro ere Bilduk. Mozioaren alde Bildu eta LOHP agertu ziren, aurka PSE-EE eta PP, EAJ eta zinegotzi ez adskribatua abstentitu egin ziren.

PSE-EEren galderak

Azkenik, galdera eta erreguntxan PSE-EE izan zen galderak egin zituen alderdi bakarra.

Eskola kontseilua eta Plan Urbanistikoko kontseilua noz bilduko diren, Aldundiak Atsoabarreko zaharren etxeko langileen soldatak ordaintzeko emandako dirua bueltatu den edo grebaren jarraipenari eta Somotoko afera zela eta, EAJ-k jarriko zuen denuntziari buruzko nondik norakoak eskatu zituen.

Hezkuntza sailko buruak Boris Nogalesen kontseilua deitu ez izana akatsa personala izan dela eta deituko dela jakin arazi zuen.

Nerea Sanchez Hirigintzako arduradunak azaldu zuenez, arau subsidiarioak aztertzen ari direla eta aldaketarik egongo balitz, orduan Plan Urbanistikoko kontseilua deituko dutela.

Atsoabarreko galderari, Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako buruak diruaren itzulketak bideratua zegoela erantzun zuen.

Pablo Barrio alkateak azaldu zuen grebak jarraipena izan zuela Udalean. "Udaltzainek ez zuten greba egiteko eskubiderik eta eskolako atezainek zerbitzu minimoak egin behar zituzten," aipatu zuen.

Kooperazio arloan gertatutakoaren harira, EAJ-ko Estitxu Alkorta denuntzia jartzeko lanean daudela eta hau ezartzean datu guztiak publiko egingo direla aurreratu zuen.

Bestalde, Bilduko Nerea Sanchezek argitzapen batzuk eman nahi izan zituen, Okendo plazari buruz. Aurreko udalbatzarrean "Okendoko lanak egin zirenean jaietarako erabiltzen zen argi koadro kendu eta ez zen berririk jarri". Orain koadro hori non jarri aztertzen ari da Udala eta irtenbidearen arabera, "agian, Okendoko eremu bat altxa beharko da".

VIII. MARATOA

Igandean bihotz erraldoia Okendon

Aurten euskararen maratoiaren zortzigarren edizioa ospatuko dugu eta dagoeneko prestaketa lanak hasiak dira. Lan hauen baitan kokatzen da igande honetan, eguerdian, Okendo plazan egingo den grabaketa.

Herritarrek bihotz erraldoi bat osatu beharko dute eta honen taupadaren mugimenduak egin beharko dituzte. Horregatik, ekimenean parte hartu nahi dutenek gorri jantzi edo jertse edo kamiseta gorria eraman behar dute soinean, ahalik eta bihotz gorri eta biziena lortzeko.

Hitzordua, beraz, igandean 12:00etan Okendo plazan izango da.

PLAZA DANTZA

Muxikoen saioa berezia

Ttaku Kultur elkarteak antolatzen duen Plaza dantzako saio berezia egingo da hurrengo astelehenean, 20:00etatik aurrera.

Donostiako Alde Zaharrean muxikoak irakasten dituen Neskur Pagola izango da irakasle lanetan. Oskorriren dantza-kontradantza, bralea eta herri dantza ikasteko aukera izango da saio berezi honetan.

Saioa ohiko lekuan, Sasoea-Zumaburu ikastetxe Sasoeta eraikineko gimnasioan izango da.

OMENALDIA

Kontzertuak eta bazkaria Kortxoenean

Larunbatean, apirilak 21ean, Kortxoenea gaztetxean bazkaria eta kontzertuak antolatu dituzte Lasarte-Oriako gazteek. Helburua Lasarte-Oriako Enrique Cob "Gorri"-ren omenezko jaialdi bat antolatzeke dirua biltzea da.

Honetan, Lasarte-Oriako Despervizio, Obito eta Bar Remigio parte hartzeaz gain, Morghead eta L.U.R. taldeen eszenatokian ikusteko aukera izango da.

Antolatzaileek azaldu digutenez, bazkaria 14:30ean hasiko da. Honen ostean, Donostiako Goto kantautoreak beste doinuak eskainiko ditu eta 18:00etan, taldeen txanda izango da.

OINATZ TALDEA

Lasarte-Oriako mugak irteera maiatzaren 6an izango da

Oinatz taldeak bihar, apirilaren 21erako aurreikusita zuen irteera bertan behera uztea erabaki du.

Lasarte-Oriako mugetan zehar egiteko zen txangoa Azkorte erromeria egunerako atzeratuko dela aurreratu dute antolatzaileek, maiatzaren 6rako.

Bazkaria ez da egingo eta hau dela eta ez da beharrezkoa izango aurrez izena ematea.



PARTE HARTZEA

Diagnosiaren aurkezpenak harrera ona

Parte hartze sailak asteazken arratsaldean auzoz auzoko bileretatik ateratako diagnostika aurkeztu zuen. Hainbat herritar hurbildu zen Manuel Lekuona kultur-etxeko hitzaldi aretora eta adi entzun zituzten Alaitz Mendizabal, Parte hartze sailko lehen-dakaria eta Larraitz Sarobe teknikariak emandako azalpenak.

Lehenengo eta bigarren fasean egindako lana laburtu, hauetan ateratako ideiak arloka azaldu eta auzoz-auzo ezarri diren lehentasunak aurkeztu zituzten, baita auzoek komunean dituzten proposamenak ere. Udaleko teknikoez ezarritako hiru multzoen arabera lan egingo dutela azaldu eta azkenik, parte hartze laborategi eta hirugarren faseko nondik norakoak azaldu zituzten.

Testuen interpretazioa landu du Kukukak

- Julia Marin antzerkiko testuen moldatzaile eta interpretazio irakasleak klase irekia eman zuen
- Antzerki eta Dantza Eskolaren 10. urteurreneko egitarauaren barnekoa zen astearteko ekitaldia

Julia Marin Arteaga antzerkirako testuen itzulpena eta horien interpretazioa jorratzen duen lasarteoriatarrek eta Maider Yabar aktore donostiarrak klase ireki bat eman zuten astearte iluntzean kultur-etxean. Kukukaren 10. urteurreneko egitarauan kokatzen den saio honetan, irakurketa dramatizatu bat egin zuen aktoreak, Kukukako kide eta bertaratu ziren herritarrei, testuen interpretazio egokia egiteko gakoak zeintzuk diren erakusteko.

Jon ALTUNA IZA

Donostiako Arte Eszenikoaren Tailerreko irakasle da Julia Marin herritarra. Euskarazko testuen interpretazioa erakusten du, bertan. Antzerkirako testuen itzulpen pila bat egin ondoren konturatu zen oso inportantea dela testu horiek gero zuzenean aktoreekin batera lantzea.

Sarri egin du horrelako lana, Euskal Herriko hainbat antzerki talderekin batera, Tanttaka, Topo, Arteszena, Porpol, Tentazioa, Txalo... "Antzerkian asko aritu naiz eta pila bat ikasi dut" kontatu digu Juliak.

1995ean hasi zen, Arteszenarekin Klaus Mann-en Mephisto prestatzerakoan: "24 bat aktore ziren, mota guztietakoak. Tarte paper bat egiteko beltz bat behar zen eta Paristik munduan euskara izeneko hizkuntzarik bazenik ere ez zekien neska bat etorri zen".

Dena den, Julia Marinen irizirik aktorea euskalduna izan arren landu behar da testuen interpretazioa: "aktore mota asko dago, eta euskara jakitea ez da berme nahikoa eskenatikian aritzeko". Julia Marinen arabera, interpretazioan ez da soilik kontutuan izan behar hitzaren eta euskararen zuzentasuna: "Hitzari nola brilloa atera, bolumena nola eman, ideien hierarkia, kolorea, ... hori guztia da. Guztiak aprobetxatuz, hitzak emozioekin eta gorputzaren inpulsoekin lotuz" lortzen da bere ustez lan ona.

Arte Eszenikoaren Tailerreko eskoletan ahoskerari garrantzia handia ematen dio Julia Marinek. Euskaraz hori alde batera utzita dagoela kritikatu du: "gramatikari gaudela kontzentratuta, idatzizkorako erabakiak hartzen dira, baina Euskal-izandiak esaten du ahoskera ez dela bere zeregina, ez du entzun ere egin nahi, baina



Antzerkian testuak egoki interpretatzearen garrantzia azaldu zuen Julia Marin lasarteoriatarrek asteartean Kultur-Etxean.

eszenari aritzeko irizpideak behar ditugu, eta komunikabideetan aritzeko ere bai".

Maider Yabarrekin

Maider Yabar trapezista eta aktore donostiarrak lagunduz Julia Marin-i astearteko klasean. "Martxoaren 27an, antzerkiaren Egunean, Arriaga-k horma eskegita John Malkovich aktoreak idatzirik manifestua irakurtzea egokitu

zitzaien eta testu zaila zen. Itzulpena egiten duzunean oso inportantea da paperean ez geratzea, eta testua esateko dela ikustea. Ezin duzu berdin idatzi irakurtzeko denean edo entzunez jasotzeko denean. Ondo idatzitako testua zen, baina oso gordina, bai esateko, bai jasotzeko; moldatu egin dut eta hemen prestatuko dugu" esan zigun Juliak saioaren aurretik.

Kukukak hamar urte, eta hamaika ikuskizun

Kukuka, Landaberri Antzerki eta Dantza Eskola sortu zenetik hamargarren urteurrena ospatzen ari da ikasturte honetan eta urte osoan zehar ekitaldi ezberdinak antolatzen. Egitarau horren barruan azkena astearteko saio irekia izan zen. Hurrengo apirilaren 25ean da, Kukai dantza taldeak kultur etxean egingo du bere ikuskizunaren entsegu bat. Gero, azaroan etorriko da Lasarte-Oriara, Tanttakarekin prestatu duen "1937, gogoaren bideidorreratik" ikuskizunarekin.

Maiatzaren 5ean, bestalde, Dorleta Urretabizkaia, aktore lasarteoriatarrek emango du klase ireki bat kultur-etxean eta ekainaren 2an Oreaka TX taldeko txalapartariak ikuskizun berezia eskainiko dute: Oreaka TX filma eskainiko da, eta txalapartariak zuzenean joko dute Kukukako kideek dantzatzen duten bitartean. Ekitaldi guzti hauek Kukukaren 10. urteurreneko ospakizunaren barnekoak dira.

Bestalde, urtero bezala maiatzaren Antzerki eta Dantza hamabostaldia antolatuko du Kukukak. Hilaren 14tik 25era bitartean herriko antzerki eta dantza taldeen lanak eskainiko dira kultur-etxean eta borobiltzeko maiatzaren 26an ospakizun eta festa handi bat antolatuko dute Okendo inguruan.

Julia Marin Itzultzailea eta antzerkirako testuen interpretazio irakaslea

“Antzerkiaren pozoia barruan daukat”

Julia Marin irakasle eta itzultzailea da. Zenbait liburu itzuli ditu euskarara, baina batez ere antzerkirako testuak itzultzen eta moldatzen aritu da azken urteotan. "Testu idatzien ahoskera. Euskal doinua. Irakurketa dramatizatu" lan teoriko-praktikoa ere burutu zuen 2002-2006 urteen artean eta hain zuzen ere horren inguruko ikerketa da bere erronka nagusietako bat. Hitzaldi eta tailerrak ere eman ditu. Asteartean Kultur-etxean, aldi, hitzaldia baino, klase ireki praktikoa eman zuen.

Nola hartu duzu Kukukaren proposamena?

Oso ondo. Hamar urte bete ditu Kukuka eskolak eta zoriondu egin nahi ditut Lasarteko antzerkizaleak. Pozgarria da herriko antzerkian ia 700 pertsona aritzea, eta, hain urte gutxitan, sekulako lorpena da. Egokia iruditzen zait, gainera,

klase irekiaren ideia, hitzaldia ematea bera baino politagoa.

Zer deritzozu antzerkilaritza amateurrek Lasarte-Oriaren duen zabalkundeak?

Zuzenean ikusterik ez izan arren, hainbeste talde daudela jakiteak poza ematen dit.

Lan ona egiten dute eta beste herri batzuetara zabalitzen ari da. Horretan oso lan polita egin dezake EHAZE, Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarteak.

Ikerketa bat burutzen ari zara?

Urteak daramatzat horretan. Euskaltzaindia idatzizkor mugatzen da, zuzentasuna eta euskal doinutik aurrera ez da bestetan sartzen. Hizkuntza handi guztiak normalizatuta dute prosodia izenekoa, eta gurean hori zientzi fikzioa da.

Ate joka ari naiz beti. Interresgarria dela eta segitzeko esaten didate, baina harrapatu-

ta nago: jateko lana egin behar badut, astirik ez daukat. Baina aterako da. Askok disfrutatzen dut lan honekin.

Nolako lana da antzerkian euskarazko bertsoak prestatzea?

Erraza ez da. Askotan lan osoa adosten dut, itzulpena egin eta gero aktoreekin lan egitea, eta gertatu zait zuzendariak horren berri jakin ez eta haserretzea.

Zineman lanik egin al duzu?

Bai, "Ander eta Yul", "Mystikal" eta "Sabin" filmetan.

Eta nola deitzen du zure lana kredituetarako?

Antzerkian normalean euskarazko bertsoa eta zuzendari laguntzailea. Obra askotan hori egin dut, bi lanak hartu: antolamenduan lagundu eta hitzak arduratu.

Telebistan egin al duzu lanik?

Martin, Jaun eta Jabe, Ertzainak, telesaietan, kapitulu solteetan.

Zer moduzko aktoreak dira euskaldunak?

Onak. Gaur egun, eta krisialdian sartu garenetik gehiago, pozoia barruan izan behar du aktoreak. Arriskatu eta maitasun handiarekin lan egiten dute, asko miresten ditut. Eskenatikian egiten duten streap tease hori eskuzabalasun handikoa iruditzen zait: nola uzten dizuten eskua sartzen.

Poztoa barruan dute aktoreak, eta zuk?

Bai, nik ere badaukat, bestela ez nintzateke hemen ibiliko.

Hau elkarlana da. Muntaiak ez dira ateratzen bat tematu delako. Talde osoak norabide berean egin behar du.

Iñaki Petxarroman Berriako zuzendariordea

“Momentu zailak dira euskal hedabideentzat”

5.000 Berria lagun lortu nahi ditu egunkariak atari digitalaren iraupena ekonomikoki ziurtatzeko. Herritarren ziztada eskatzen ari dira ere Lasarte-Orian.

“Zure Ziztada behar dugu” kanpaina martxan jarri du Berriak eta honen inguruan aritu gara kazetari lasarteoriatarrekin, orain egunkariko zuzendariordea. Helburua 5.000 Berria lagun lortzea da. Diru ekarpen honekin oztopo ekonomikoak nolabait gainditu eta Berria.info atariaren biziraupena ziurtatuko luke komunikazio taldeak.

Maider AZURMENDI

Iñaki Petxarroman kazetari eta idazle lasarteoriatarra Berriako zuzendariorde da egun. Gizarte saileko ardura-dun bezala jardun izan da orain gutxi arte egunkarian eta pozik dago suertatu zaion erroka berriaren aurrean. Idazlea izanik, idaztea da hain zuzen bere egunerokoa gehien faltan botatzen duena. Berriak martxan duen “Zure ziztada behar dugu” kanpainaren inguruan mintzatu gara berarekin Andoingo bere lan tokoan.

Lehenik eta behin, kazetari, idazle eta orain Berriako zuzendariorde. Zer moduz lan berri honetan?

Lan berri bat da niretzako bai. Gizarte arloko burua nintzen eta zuzendariordearen hutsunea sortu zenean, ardura behin behineko hartzeko proposamena egin zidaten eta onartu nuen. Behin behineko antolatze modu berri bat martxan jartzen ari garelako eta hurrengo hilabeteetan ikusiko da bakoitza non kokatzen den.

**Pertsonalki alde handia al dago kazetari lanetik egungo-
ra? Ardura bada ezta?**

Bai ardura da eta lana diferentea guztiz. Azken batean orain antolaketa lana egitea dagokit, bilera asko etab. Askoz gutxiago idazten dut orain eta hori bai faltan botatzen dut izan ere, kazetari lana da pertsonalki egitea gehien gustatzen zaidana, informazioa bilatu, kudeatu eta idaztea. Orain hau tokatzen da eta norbaitek egin behar duen lana da beraz asumitzen dut egin beharrekoa.

**Esan daiteke garai zailetan sartu zarela Berriako zuzendari-
dartzan? Krisia dela eta eko-
nomikoki zenbait oztoporekin**

aurkitzen zarete...

Bai, egoera orokorra zaila da. Hedabideen eta bereziki idatziko prentsaren egoera zaila da eta momentu zailagoak oraindik euskarazko hedabideentzat. Zurrunbilo horretan murgilduta gaude. Hainbat urte daramatzagu zenbakiak oso gaizki ateratzen zaizkigula, publizitatean bereziki izugarriko malda behera pairatzen ari gara eta urtetik urtera egoera konpondu beharrean, larriagotzen ari dela ikusten dugu.

Honen aurrean gure proiektua “blindatu” behar dugula uste dugu datozen hilabete eta urteetan iraupena izan dezan. Hau lortzeko beti egin izan duguna egin dugu, gure jendeari, euskalgintzari, euskarazko prentsaren sinesten duen orori, proiektuari eusten lagun gaitzaten eskatu diegu.

Publizitate fakturazioa %30 galduta. Zergatik izan da hau? Erakundeen murrizketak ala bestelako bezeroen galarak?

Bietatik dago baina erakundeek publizitatean egin duten murrizketa izan da gehien eragin diguna. Bestelako publizitatea beti txikiagoa izan da gurean eta hau ere txikitu arren, erakundeena izan da guretzat jipoirik handiena. Erakundeetan ere momentu zailak bizi dira eta publizitatetik kendu dute dirua.

Herritarren sostengua beharrezkoa izaten jarraituko duela diozue. Herritarrentzat ere ekonomikoki ez da une egokiena...

Egoera orokorraren jabe gara. Badakigu ez dela momentu ona edo hoberena eskean ibiltzeko eta badakigu jendeak zailtasun gehiago izan ditzakeela orain euren laguntza emateko. Hala ere, abian dugun kanpaina beharrezkoa dugu eta poliki bada ere aurreikusitako zenbakieta



iristeko bide onetik goaz. Jendeak beste behin demostratzen digu proiektu hau euskalgintzarena dela, herri osoarena, eta herriak eutsiko diola.

Egia da ezin dugula jakin noiz arte iraungo dugun baina bide onetik goaz kanpainarekin eta bereziki ondo baloratzen dugu jendearen erantzuna aipatutako egoera ekonomikoki zail honetan. Orain ere laguntzeko prest daude.

Diru laguntzak ere murriztu dira ezta?

Jaurlaritzaren diru laguntzak nabarmen jaitsi dira. Gure kasuan %10 jaitsi dute baina jipoi handi da hedabideentzat. Kudeatzaile publikoek diru laguntza ekarpen handiagoa egitea garrantzitsua dela ohartarazi behar zaie eta euren inplikazio handiagoa eskatu sektoretik.

Esan bezala momentua oso zaila da eta ez bakarrik guretzat, ez dugu protagonismoa hartu nahi, horregatik beste hedabideekin ari gara sektorearen koordinazioa lantzen eta aurrera begirako lan ildoak eratzen.

“Zure Ziztada behar dugu” kanpaina abian duzue. Zein da honen helburua?

Berria taldea egoera ekonomikoki zailan dago esan bezala eta dei bat egin nahi izan diegu herritarrei ahal duten

ekarpena egin dezaten. Bakoitzak ikusiko du nola ahal edo nahi duen lagundu. Horren truke, Berriak abantaila batzuek eskaintzen dizkie, egun harpidedunei eskaintzen zaizkienak, deskontuak, Berria PDF formatuan jasotzeko aukera besteak beste.

Kanpaina abiatu genuen arrazoik nagusi batengatik eta da Berria.info. Berria taldearen egoera orokorra ez da hain larria, baina digitalaren kasua bestelakoa da. Honetan geroz eta inbertsio handiago egin behar izan dugu atari on bat izateko. Honi eskerrak irakurle gehiago ditugu orain bai baina gure edizio digitalak ez digu dirurik ematen.

Bereziki deia egin nahi izan diegu egunero gure webgunetik euren informazio beharra asetzen dutenei. Guk informatzen jarraitu nahi dugu, ahalik eta webgune hoberena nahi dugu eduki gure irakurleen zerbitzura, baina aldi berean eskatu nahi dugu hauek gure ahalegina nolabait konpentsatzea. Kasu honetan esan daiteke kanpaina ez dugula hainbeste gure harpidedunengan bideratu.

Nola doa Lasarte-Orian ziztadaren kanpaina?

Ba esan bezala poliki goaz hau zabaltzen. Orainxe hasi gara bilerak egiten, Ttakuneko kideei gutuna bidali zaie eta kanpaina pixkat antolatzen ari gara. Hala ere, herritarrei

esan dagoeneko Ttakunekin harremanetan jarri edota Berriara jo dezaketela euren laguntza emateko. Hurrengo asteetan gauzak egingo ditugu. Hala ere, esan ez dela kanpaina masibo bat egingo.

Zer nahi duzue lortu?

Helburua aurten 5.000 berria lagun egitea da. Maila nazionalen kanpaina ondo doa, erdia baino gehiago lortu ditugu dagoeneko eta udarako espero dugu 5.000 horietara iristea. Jendeari konpromisoa eskatzen ari zaio, ez da laguntza puntual bat ematea eta kitto, laguntza iraunkor bat baizik.

Helburura iristean bukatuko da kanpaina eta uste dugu horrela gure aurrekontua orekatuta geratuko dela.

Zer esango zenieke Lasarte-Oriako bizilagunei euren ziztada ematera animatzeko?

Lasarte-Oria herri bezala euskalgintzaren aldetik oso ibilbide polita egin du. Behar bada proportzioan euskaldunak gutxiago gara baina trinkotuta dago eta ikusten da euskararekiko atxikimendua eta grina dagoela.

Berriak baditu bere harpidedunak Lasarte-Orian eta espero dugu dozena batzuk berria lagun egitea datozen asteetan. Ziur egingo direla orain arte akziodun eta harpidedun lasarteoriatarrek ditugun moduan.

FUTBOLA.



Sanpedrotarrak taldearen aurka gogor jokatu ziren herritarrak, garaipena eskuratzeko.

Ostadarrek igoera jokoan

Ostadar SKT-ko Erregional Gorenak igoera jokatzen du larunbata honetan Touring-en aurka, 16:30etatik aurrera, Fanderia zelaietan.

Touring eta Ostadar-Plagamanian buruz buruko honetan taldeko lehen postua izango da lehiatzen eta taldeak mailaz go nahi badu ezinbestekoa du partida irabaztea.

Denboraldi txukuna egin du Mikel Martijak eta Asier Gorostegik zuzentzen duten erregional taldeak, hogeitara irabazi, lau partida galdu eta bi berdindu ditu.

Taldeari babesa

Honela, Ostadarreko lehen

taldeko jokalariei babesa, laguntza eta berotasuna eman nahian Ostadar S.K.T-eko ordezkariak jarraitzaileei eta kirolaren zaletuei partidatik ikusteko gonbitea luzatzen diete.

Zaletuek elkarrekin trenez joateko hitzordua egin dute 15:15ean Euskotreneko geltokian, 15:29ko tren hartzeko. Trikitilariak ere ez dira faltako.

Taldeari babesa emateko kamixetak ere egin dituzte eta hauek 6 eurotan salgai daude Ostadarreko bulegoan.

Elkarteko ordezkariak larunbat arratsaldean kirol festaz gozatzeko eta jai giroak gailentzea espero dute.

MENDIA.

Zubietatik Lasarte-Oriara irteera

Nafarroako herrixkatik herrira egingo da 11 ordutako ibilbidea

Mendi zale ugari dago gure herrian, baina bada taldetxo bat Ostadar SKT-ko mendi sailan urtero ibilbide luzea antolatzen duena. Iaz Arantzatik atera eta Lasarte-Oriako bidea egin zuten, aurten Nafarroako Zubietatik aterako dira mendi zaleak.

Nerea EIZAGIRRE

Ostadar SKT-ko Mendi sailak Nafarroako Zubietatik Lasarte-Oriara mendi ibilbidea antolatu du maiatzaren 13rako.

Aurreko urteetan, Arantzatzu, Aralarreko San Migel, Arrate edo Arantza eta gure herri artean dauden kilometroak egingo ditu talde honek.

Aurten 11 orduko txangoa izango da egingo duena. Antolatzaileek aipatu digute-



Arantzatik Lasarte-Oriarako bidea egin zuten iaz hogeitazaleak.

A. URIARTE

nez, Zubietatik Loizate mendira, Goizueta, Arano, Eteneta eta Otitatik Leitzaran bailara iritsiko dira. Hemendik Andoain aldera egingo dute eta azkenik Lasarte-Oriara Buruntzatik iritsiko dira.

Ostean, indarrak berreskuratuko afaria izango dute.

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, janaria eta edaria eramane behar dute partehar-

tzailak. Nahiez gero, ibilbide erdia egin dezakete eta txakurrik onartuko ez dutela ere aipatu dute.

Izena ematea

Irteeran izena emateko interesatuek Lagunak elekitzitate dendararen edo Ostadar Mendi sailera hurbildu behar dira. Inskribatzeko azken eguna, maiatzaren 4a ostirala, izango da.

KIROL AGENDA.

FUTBOLA

Larunbata 21

Usabal, Tolosa, 09:30ean
Tolosa-Texas Lasarteerra *I. kadetea, kopa*
Zarkumendegi, Astigarraga, 11:00etan
Astigarragako Mundarro-Ostadar
Infantilen Ohorezko maila, kopa

Usabal, Tolosa, 12:30ean
Tolosa-Ostadar *I. infantil, kopa*

Michelin, 14:00etan
Ostadar-Real Union
Emakumezkoen erregionala, igoera

Michelin, 15:45ean
Ostadar-Ilintxa *I. kadetea, igoera*

Fanderia, Errenteria, 16:30ean
Touring-Ostadar *Erregional Goren*

Michelin, 17:45ean
Texas Lasarteerra-Beti Ona
I. jubenila, kopa

Ilgandea 22

Michelin, 10:00etan
Ostadar-Dunboa Eguzki
Infantil txikiak, kopa

Matigoxotegi, Donostia, 10:30ean
Internacional-Ostadar
Alebinak, kopa

Michelin, 11:30ean
Texas Lasarteerra-Danena
I. Erregionala, kopa

Michelin, 11:30ean
Texas Lasarteerra-Danena
I. Erregionala, kopa

Zubieta, 17:30ean
Real Sociedad-Ostadar
Kadeteen Ohorezko maila, igoera

Pau, Donostia, 18:00etan
EAS 08-Ostadar *I. Erregionala, igoera*

Errotazar, Deba, 18:00etan
Amaikak Bat-Ostadar
Jubenilen Ohorezko maila, igoera

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 20
HERRIKO TXAPELKETA
Kiroldegia, Finalerako bidea
20:00etan, ISU Leioak-El Punto
21:00etan, Izarra-Izkiña

Larunbata 21

HERRIKO TXAPELKETA
Kirol gunea, areto-futboleko kantzua,
Ligaxka
09:30ean, El Bar de Mau-Ilun
10:30ean, Ilargi-Trunioia
11:30ean, Viña del Mar-Indaux
12:30ean, Naiban-Los Tiburones Rojos
Kiroldegia, 17:30ean
Aldaz H.K.-Inter Eder Kafetegia
Nazional III. maila

Ilgandea 22

HERRIKO TXAPELKETA
Kiroldegia, Finalerako bidea
09:10ean, Ayete-Buenetxea
10:10ean, Balerdi-Txindoki
Urreta Kiroldegia, Galdakao, 12:00etan
Lagun Onak-ISU Leioak *Euskal Liga*

PILOTA

Larunbata 21
Michelingo pilotalekuan, 16:00etan
Intza-Zestoa *Udaberri txapelketa, eskuz binaka, 2. urteko alebinak*
Intza-Alde Zaharra *Udaberri txapelketa, eskuz binaka, infantilak*

SQUASHA

Ostirala 20
Kiroldegia, 18:00etatik aurrera
Aitor Tejero-Pablo Fermoselle
Joaquin Peña-Iker Cañedo

Astelena 23

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera
Oswal Cañedo-Kinin Calvo
Juanjo Martin-Raul Mateos

Asteartea 24

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera
Xabier Amiano-Francisco Delgado
Roger Hidalgo-Fernando Montero

Asteazkena 25

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera
Javier Serrano-Asier Munduate

Osteguna 26

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera
Igor Irimoto-Aitor Tejero
Iñaki Garcia-Joaquin Peña

IGERIKETA

Larunbata 21
Paco Yoldi, Donostia, 10:00etan
Buruntzalde IKT-ko infantil, junior,
promesa eta absolutu mailako
igerilariak Manolo Garcia Sarian
izango dira.

TENISA

Ostirala 20-Ilgandea 22
Bartzelona, egun osoa
Patxi Fadrique herritarrak "Open
International Fundación Emilio

Sánchez Vicario" teniseko
txapelketan parte hartuko du.

JUDO

Larunbata 22
Genova, egun osoa
LOKEko Esteban Martinezek eta
Oscar Garridok "Città di Colombo"
nazioarteko txapelketan parte
hartuko dute, Hondarribiako
Amagudalupeko taldearekin.

ATLETISMOA

Ilgandea 22
Urnieta, 09:30ean
Herriko hainbat korrikalarik
Urnieta mendi lasterketan parte
hartuko dute.
Tolosa, 10:30ean
Landaberri eta Sasoteko
ikastetxeko gaztetxoek Gipuzkoako
txapelketako lehenengo jardunaldia
dute.

DUATLOIA

Larunbata 21
Arrigorriaga, 15:00etan
Herriko hainbat duatletak
Euskadiko distantzia luze
txapelketa den Arrigorriagako
duatloian parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 21
Zarauz, 16:15ean
Bazpi txirrindularitza eskolako eta
herriko kadete mailako gazteek
XXII. Zarauzta sarian parte
hartuko dute.

Aretxabaleta, 16:30ean

Bazpi txirrindularitza eskolako
infantilek Aretxabaleta sarian parte
hartuko dute.

Ilgandea 22

Deba, 08:00etan
Herriko hainbat zikloturistek Debako
XX. biran parte hartuko dute.

Biyak Bat arrean, 08:30ean

Ostadar SKT-ko zikloturismo
taldeak Arriarango urtegiara egingo
du irteera.

Aia, 11:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta
herriko jubenilek XVIII. Gipuzkoako
Klasikan parte hartuko dute.

ERRUGBYA

Ostirala 20
Michelin, 19:00etan
Beltzak Ostadar Jaiak eskolako maila
guztiekin entrenamendua dute.

Larunbata 21

Zarauz, 17:30ean
Beltzak Ostadar Jaiak-Getxo
Infantil federatuk

Ilgandea 22

Michelin, 09:00etan
Beltzak Ostadar Jaiak eskolako maila
guztiekin entrenamendua dute.

BOLO-JOKOA

Ilgandea 22
Mutiloa, 10:00etan eta 16:30ean
Ostadar SKT-ko bolo jokalariek
Gipuzkoako kopako saioa dute.

Agenda

Larunbata 21, 18:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



Haur minbizia eta gurasoen kezka

Zuzeneko musika, txotxongilo, magia eta bestelako efektuekin lagundutako antzezlan da Markeliñe taldearen "Hareazko ipuinak". Minbizia duen haurra du oinarri eta tratamenduak irauten duen bitartean ospitalean egon beharko du. Aitaren beldurra eta obsesioa, bere alaba sendatzearekin batera, haurtzarora ez galtzearena da. Euskaraz. Sarrera internet bidez, 3 euro eta leihtailan, 3, 40 euro.

dela eta, Donostiako Teatro Estudiok "El chico de la última fila" antzerkia eskainiko du. Gastelaniaz. Doan.

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 20, 23:00ean
Zarazuko "Bluestock taldeak" bere lehen diska, "Bi pauso", aurkeztuko du. Euskarazko abesti propioak eta ingelesezko klasikoak bertsoak entzungo dira.

ABEND KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 20, 23:45ean

"Rise to Fall" eta "Lion Head" taldeen metal kontzertua izango da. Sarrerak aurrez 10 euro eta egunean, 12 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Apirilean zehar

Inhar Mutiozabalek "Ez da Maharajarik geratzen" argazkien erakusketa ikusgai dago. Koadroak salgai daude, zerbitzariari galdetu.



Bestelakoa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Astelehena 23, 16:30ean

Liburuaren eguna dela eta, EPAko ikasleek irakurketak egingo dituzte.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Asteazkena 25, 19:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako X. urteurrena dela eta, Kukai dantza taldeak entsegu irekia egingo du.

Donostia

Musika

KORTXOENA GAZTETXEA
Larunbata 21, 14:30etatik aurrera
"Gorri"-ren omenezko bazkari eta kontzertuak. Goto, Despervizio, LUR, Obito, Morghead eta Bar Remigio.

Lasarte-Oria Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 22, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, "Viaje al centro de la tierra 2" filma ikusgai izango da. Gastelaniaz. Sarrera 3,40 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Osteguna 26, 21:30ean

Okendo zinema taldearen eskutik, Atzeriko hizkuntza atalean Oscar saria lortu zuen "Nader y Simin, una separación" film iraniarra eskainiko da. Gastelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 29, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, "Una aventura extraordinaria" filma eskainiko da. Gastelaniaz. Sarrera 3,40 euro.
Igandea 29, 16:30ean
Okendo zinema taldearen eskutik, Atzeriko hizkuntza atalean Oscar saria lortu zuen "Nader y Simin, una separación" film iraniarra eskainiko da. Gastelaniaz. Sarrera, 5,50 euro.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 27, 22:00etan

Danak Kide elkartearen 50. urteurrena

Herritarren txokoa

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza eta Lourdes-era txangoa

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da apirilaren 23an, asteartea, arratsaldeko 17:00etan.

Honetaz gain, Maria Auxiliadora elkarteak Lourdes-era txangoa antolatuko du maiatzaren 13rako. Prezioa 27 euro dira. Izena emateko, 943 363 675, 943 360042 edo 943 364 296 zenbakietara deitu behar da gaueko 21:00etatik 22:00etara.

Gernika-Lumo eta Bilbora irteera
Biyak-Bat erretiratuen elkarteak irteera antolatuko du apirilaren 30ean, Gernika-Lumo eta Bilbora.

Honetan, bakoitzaren gustuaren arabera, Gernikako batzar-etxea, Santa Maria eliza, Bakearen museoa edo azoka bisitatu ahaliko dira. Bazkaria "Lur Gatika" jatetxean izango da. Arratsaldean, Bilbon izango dira.

Elkarteko bazkideentzako 34 euro da eta bazkideak ez direnek, 38 euro ordaindu behar dituzte. Izena emateko epea irekia dago.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, bizikleta bat, urrezko pultsera, eraztun bat, neska-aren eskumuturreko bat, betaurreko graduatuak eta urrezko belarririkatu bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Jesuitinas ikastetxeko ikasle ohien bazkaria

Jesuitinas ikastetxeko ikasle ohien bazkaria antolatuko da, apirilaren 21ean, 14:00etan, Dakara jatetxean. 1960. eta 1961. urteetan jaiotako ikasleen bilera da.

Bazkarira joan nahi dutenek 18 euro sartu behar dituzte Kutxako kontu korrante zenbaki honetan, 2101-0092-13-0105552145. Bakoitzaren izena adierazi behar da.

Eskutitza

Zaborrak: serio hitz dezagun

Hondakinen kudeaketari dagokionez Gipuzkoa bidegurutzean aurkitzen da.

Zubietako errauste planta eraikitzeke kontratuaren etenaldiak, eta lurraldeko zenbait udalerrik atez ateko bilketa sistema ezarri behar dutelako jakinarazpenak sortutako jokaleku berria kontuan harturik zabor kudeaketa-plangintza eta azpiegituren plana berraztertzeke asmoak Gipuzkoako hondakin kudeaketari buruzko eztabaida berpiztu egin dute.

Zenbait Alderdi-buruzagik komunikabide jakin batzuen laguntzaz gizartearen alarma sortzeari ekin diote, arduragabekeria, porrot arriskuaz eta berehalako kolapsoaz hitz eginez.


Zaborren kudeaketaren gaiari aurre egiteko ordua iritsi delakoan gaude. Hartu behareko erabaki egokiak hartze aldera arazoaren izaera eta tamaina, eta ingurunean, ekonomian eta gizartearen dituen ondorioak aztertu behar ditugu. Gure ustez, Lasarte-Oriak ezin du eztabaida hau denbora gehiagoz atzeratu.

Horretarako, proposatzen dugu hiritar-foroa edo eztabaida talde bat osatzea. Taldearen eginkizunak beharrezko informazioa biltzea eta -espiritu positiboaz,

apriorismorik zein aurreiritzi partidistatik gabe, parametro objektibo neurgarrien oinarrituz- oinarrituko adostasunak eta partekatutako helburu batzuek lortzen ahalegintzea, murrizketa (birziklatu ezin den hondakin zatia minimizatzea eta Zero Zabor programa bat lantzea), bererabilpena, birziklapena (gaikako bilketa tasa maximizatzea), ala materia organikoaren banakako zein taldeko konpostatzea bezalako gaietan, eta horretarako guztirako Ekitza Plana egitea.

Guk, gure aldetik, eztabaida pizteko eta gaia herritarrei hurbiltzeko asmoz, hondakinei buruzko jardunaldi batzuek antolatuko behar ditugu, honako jarduerak sartuko direla, besteak beste: Gipuzkoako hondakin kudeaketaren gaur egungo egoerari buruzko hitzaldi bat, bideo emanaldi bat, gure herriko lur azpiko edukiontziko multzoetatik ibilbide bat, eta 5. edukiontzia eta atez atekoaren funtzionamendua ezagutzeko, Donostia eta Usurbilera bisitatu. Datozen egunetan jakinaraziko dugu jardunaldi hauen programa.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



IZARRA BITXITEGIA



www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY[®] A.I.E.

